

SORGINAK

Amona oso aditua zen sorgin kontuetan, eta garbi utzi zidan bere ipuinak, beste zenbaitek kontatzen zituztenak ez bezala, ez zirela asmatuak. Egi-egiazkoak ziren guztiak.

- Zin egiten didazu ez zarela adarra jotzen ari? –esan nion–. Zin egiten didazu ez zabiltzala gezurretan?

- Entzun, maitea –erantzun zidan–, bost haur ezagutu ditut gutxienez egun batean desagertu eta geroztik azaldu ez direnak. Sorginek eraman zituzten.

- Beldurtzearren esaten duzula uste dut nik –esan nion.

- Ez dut nahi zuri horrelakorik gertatzerik. Horrexegatik esaten dizut. Maite zaitut eta nirekin geratzea nahi dut.

- Esan zer gertatu zitzaien desagertutako hurrei –eskatu nion.

- Ranghild Hansen izeneko neskatala izan zen lehena desagertzen. Sasoi hartan Ranghildek zortzi bat urte izango zituen eta ahizpa txikiarekin jolasean ari zen lorategian. Ama sukaldean ogia egiten ari zela, kanpora irten eta hauxe galdetu zuen: “Non da Ranghild?” “Emakume altuarekin joan da”, erantzun zion ahizpatxoak. “Zein emakume altu?”, esan zuen amak. “Eskularru zuriak zeuzkana”, esan zion neskatoak. “Eskutik hartuta eraman du Ranghild”.

- Geroztik ez du inork Ranghild ikusi –bukatu zuen amonak.

- Eta ez zuten bilatu?

- Bai, bila eta bila ibili ziren inguruotan. Herritar guztiek lagundu zuten, baina ez zuten sekula aurkitu.

- Zer gertatu zitzaien beste lau umeei?

- Haiek ere desagertu egin ziren, Ranghild bezala.

- Baina, nola amona? Nola desagertu ziren?
- Kasu guztietan emakume bitxiren bat ikusi zuten etxe inguruan, gauzak gertatu baina apur bat lehenago.
- Baina nola desagertu ziren?

***** (Irakurri bitartean galderak egiteko geldialdia)**

- Bigarren kasua bitxia izan zen benetan –esan zuen amonak–. Bazegoen Christiansen izeneko familia bat. Holmenkollen-en bizi ziren eta olio egindako margolan bat zuten egongelan. Oso harro zeuden margolan hartaz. Bertan ahate mordoa ageri zen, landetxe baten atarian. Ez zegoen jenderik koadroan, ahateak belarrez beteriko patioan eta landetxea baino ez. Margolana handia zen eta polit samarra. Beno, bada, egun batean, haien alaba Solveg sagar bat jaten etorri zen eskolatik. Esan zuenez, emakume atsegin batek eman zion kolean. Biharamunean, Solveg txikia ez zegoen bere ohean. Gurasoek leku guztietan bilatu zuten, baina ezin izan zuten aurkitu. Orduan, bat-batean, aita ohiuka hasi zen: “Han dago! Horra Solveg! Ahateei jana ematen ari da!”, zioen margolana seinalatuz. Eta bai, hantxe zegoen Solveg. Zutik zegoen patioaren erdian, eskuan ontzi bat zeukala, ahateei ogia botatzen. Aita margolana zegoen tokira joan zen korrika eta ukitu egin zuen. Baina alferrik. Solveg margolanaren zati bat zen, mihisean margoturiko irudi bat baino ez zen.

SORGINAK. ULERMENA

1. Zer **istorio mota** konta daiteke horrelako hitzarekin?

2. **Zer** kontatuko du ipuinak?

3. **Nolako** da **amona**?

- a) zekena b) ipuinzalea c) berekoia d) gezurtia e) ezaguna
f) azkarra g) jakintsua h) alferra i) beldurtia

4. **Nolako** dira ipuinan aipatzen diren **sorginak**?

- a) altuak b) gaiztoak c) eskularrudunak d) ausartak
e) bitxiak f) atseginak g) gezurtiak h) koldarrak

5. Idatzi **(E)** egia ala **(G)** gezurra diren esaldiak:

- Solveg-i sagar bat eman zion emakume on batek.
- Christiansen familiaren etxeko mihisea sorgindurik zegoen.
- Solvegek animaliak maite zituen eta horregatik ematen zien janaria.
- Desagerpen guztiak amonaren asmakizunak dira.

6. Zure ustez **zergatik** kontatu du amonak ipuina?

- a) Umeak beldurtzeko
- b) Ezezagunekin ez fidatzeko
- c) Denbora pasatzeko
- d) Ipuinak kontatzea gustatzen zitzaiolako
- e) Beste egiterik ez duelako
- f) Sorginen mundua ezagutarazteko

7. Ipuinak kontatu digu sorginek haurrak eramaten dituztela; **zure ustez**, ba al du ideia horrek zerikusirik errealitatearekin?

8. Irakurri ipuineko pasartea. Horren arabera, esango al zenuke **sorgin guztiak gaiztoak** direla? Arrazoitu zure erantzuna.

- Zin egiten didazu ez zarela adarra jotzen ari?- esan nion.- Zin egiten didazu ez zabiltzala gezurretan?

- Entzun, maitea -erantzun zidan-, bost haur ezagutu ditut gutxienez egun batean desagertu eta geroztik azaldu ez direnak. Sorginek eraman zituzten.

9. Norentzat izan daiteke egokia ipuina?

- a) Ume beldurtientzat.
- b) Edozeinentzat.
- c) Ezezagunekin fidatzen ez direnentzat.
- d) Ume ausartentzat.
- e) Lokartzerekoan ipuina entzutea gustatzen zaienentzat.
- f) Ipuin-kontalari entzat.
- g) Sorginen kontuak gustuko dituztenentzat.

10. Zein da ipuinaren xedea?

- a) Margolariei ongi margozten erakustea
- b) Lotara joan aintzinetik umeak lasaitzea.
- c) Edozein pertsonetaz fidatzea egokia ez dela erakustea.
- d) Amponak ipuin-kontalari trebeak direla adieraztea.
- e) Amonaren ipuinak egia zirela frogatzea.
- f) Ipuineko umea beldurtzea.
- g) Irakurleei adarra jotzea.
- h) Besterik:

11. Zer beste izenburu izan daiteke egokia ipuinarentzat?

12. Esaldiak adibidetzat hartuta, asma egitura berbereko beste batzuk:

- Zin egiten didazu ez zarela adarra jotzen ari?
- Zin egiten didazu ez zirela tontoarena egiten ari?
- Zin egiten didazu..... ari?
- Zin egiten didazu..... ari?
- Zin egiten didazu..... ari?